



## Balio anitzeko zentroa inauguratu dute Gaztelun

**XEDEAK** ▶ Adinekoei bizilekua eta arreta eskaintzeko sei lagunentzako apartamentu babestuak, eta helduak elkartzeko gizarte zentroa hartzen ditu eraikinak ▶ 5



Ordezkarri politikoak eta herritarrak, aurkezpenean, herenegun. I. T.



## Atsedetik gabeko asteburuaren ostean, amaitu dira Inauteriak

**LIZARTZA** ▶ *Ijitoa* errez agur esan zieten lizartzarrek 2006ko Inauteriei, herenegun. Aurtengoek ere parte-hartze handia izan dute. Ureta baserriko koadrilak, Kimi Raikkonen eta Mc Laren taldeaz mozarrotuta, irabazi du gurdi ikusgarrienari Luzea saria; eta balkoi apainduenarena Lourdes Lasak jaso du. HITZA ▶ 4

**TOLOSALDEA** ▶

### Espainiako Txapelketan, 11 domina eskualdera

Olaberriak 6, Pagolak 3 eta Artolak 2; lehena Australiara doa ▶ 6

**VILLABONA** ▶

### Alejo-Sanchez bikoteak jantzi du txapela

Alejo-Mitxelenari 40-20 irabazi diete Joko Garbiko finalean ▶ 3

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶

## Arrospide, Binakako Urrezko Aizkolarien Txapelketako finalean

Otaegi kanpoan geratu da; Rekondok aurrera jarraitzen du Banakakoan ▶ 2



Ero-Etxekoak, aurkezpenean. N. L.

**TOLOSA** ▶

## Habanera pieza berria sortu du Ero-Etxe elkarteak

Joxe Mendizabal bazkideak egina, Astelenitan estreinatuko du txarangak ▶ 2

## TOLOSA ▶ INAUTERIAK

# 'Eronera', Ero-Etxeren habanera

Joxe Mendizabalek egin du pieza eta txarangak Astelenitan aurkeztuko du

NOELIA LATABURU

Inauterietan guztiak ohiko kantuen harira aritzen dira salto eta brinko txarangaren atzetik. Aurtengoan doinu berriak ere entzungai izango dituzte, Ero-Etxe elkarte txarangak habanera berria aurkeztuko baitu. *Eronera* izenarekin bataiatu nahi izan du Joxe Mendizabal egileak, «txarangaren izpiritu eroa islatzen duenez». Ramon Artola zuzendari berriaren gidaritzapean estreinatuko dute pieza, Astelenitan.

Habanera berria sortzeko ekimena Juan Carlos Andueza-ren proposamena izan zen. 25

urtez Ero-Etxe txarangako zuzendari izan dena Mendizabali «behin eta berrir» eskatu zion habanera sortzeko eta «ezin izan nion ezezkoa eman», konposatzailearen esanetan. Ero-Etxeko txarangak ez zuen habanerarik bildumaren bajaran eta «berriztatzailea» izatea nahi zuen Mendizabalek. «Habanerak dituen pautak jarraitu ditut, baina bigarren zatia oso indartsua da; izan ere, harridura sortu nahi nuen». Zati hau da, hain zuzen, txarangaren nortasunaren adierazle.

Helburua habanera Inauterietan non-nahi entzun ahal izatea dute eta kantu bilduman



Ero-Etxeko txarangako hainbat partaide, aurkezpenean. N. LATABURU

barneratzea, baina pieza guztiek bere prozesua dutela jakinarazi dute. Mendizabal, bere aldetik, «gustura eta pozik» azaldu da lortutako emaitzarekin. Lehen kortsak jotzen dituzten unetik «sekulako arrakasta» lortuko duela baieztatu du eta «gero eta gehiago entzun are eta atseginagoa iruditzen zaiola ere azaldu du.

### Andueza-ren omenez

Txarangari ez zaio «bereziki» kostatu habanera ikastea, «beste abesti bat bezalaxe izan da». Hala ere, «erabat ondo

ateratzeko» denbora behar dutiek bere prozesua zuten. Guztia prest dago, beraz, Inauterietan doinu alaiak emateko.

Txarangako partaide Isitxo Larrañagak azaldu zuenez, Jose Manuel Andueza-ri omenaldi beroa eskainiko diote, Batasuna elkarte bazkide hilerriari. Elkarteko atean burutuko dute, hain zuzen ere, ekitaldia, non orogarri bat lutzatuko dioten omenduaren izenarekin. «Elkartearen aldetik beti jaso izan dugun tratua ona eskertu nahi dugu horrela, bai eta beti izan dugun harreman bikaina ere».

## AIZKORA ▶

## Arrospide finalera igaro da Binakakoan; Otaegi kanpoan geratu da, «gutxigatik»

Rekondo leitzarrak ere aurrera egin du Banakakoan, Zubiagarekin

N. LATABURU

Anjel Arrospide leaburrak eskuratu zuen, herenegun, Fausto Mugertzarekin batera, Binakako Urrezko Aizkolarien finala jokatzeko txartela, fina-

lerdian egungo txapeldun Erdozia eta Nazabal mendean hartu ostean. Oso erraz garaitu zituzten, proba guztietan nagusitu baitziren leaburuarra eta mutrikuarra. Bikotea Mindegia eta Senosiain Iaren aurka ariko dira finalen, datorren larunbatean, Azpeitian.

Otaegi zizukildarrak, aldiz, ezin izan zuen garaipena bereganatu eta Gazteen Mailako finalaren atarian geratu zen. Garikoitz Larretxea izan zuen bikote Otaegik eta, hasiera batean irabazteko hautagaiak baziren ere, «gutxigatik» kanpoan geratu ziren. Zutikako saioa irabazi zuten, baina bakarkakoan etorri zen denbora galera. Zizurkilgoak Atutxa aurkariari irabazi egin zion, bain Aldaperekin galdu egin zuen eta Larretxeak bi saioak galdu zituen. Ondoren, 45 ontzakoarekin laurak batera aritu zirenean, Atutxa izan zen estreinakoa, eta Aldape bigarrena. Txanda libreko saio luzean nafarrak eta gipuzkoarrak al-

deak asko murriztu arren, bizkaitarrak sartu dira finalean. Hiru segundogatik geratu da, beraz, aizkolaria kalean.

Arrospideren saioa, berriz, «bikaina» izan zen, eta bera ere pozik agertu zen amaieran. «Itxaropenarekin etorri gara, eta uste dut lan ona egin dugula». Hasieratik hartu zuten alde eta bakarkako saioan Nazabali irabazi zion Arrospidek. «Orduntxe garaipena lortuko genuela ikusi dut». Haiei «txispa» faltatu zitzaizela adierazi zuen. Orain finala du gainean eta «orekatua» izango delakoa dago leaburuarra, beti ere dituen irabazteko aukerak aprobetxatuko dituelarik. «Azpeitira irabaztea joango gara».

Oinbikoa zutik moztuz ekin zioten saioari eta «jaun eta jabe» izan zen Arrospide, bere bikotearekin batera. Honi esker, zulo handia lortu zuten eta garaipena berarentzat izango zenaren itxura hartzen hasia zegoen finalerdia. Ondorengo lana ere oinbikoarekin zuten,



Arrospide, lanean. I. OTEGI / A. RESS

etzanda. Proba hau ere Arrospidek eta Mugertzak osatutako bikoteak irabazi zuten.

### Rekondo ere, aurrera

Binakako finalerdiekin batera, Durangon, bakarkako beste saio ere jokatu zuen Rekondo leitzarrak. Aurrera egin zuen, Rodrigezi «oso erraz» irabazi ostean.

Zutikakoan, hogeituro bigarrena kendu zizkion. Erlojuz kontrakoan, 23 segundo atera zizkion eta saio luzean, berriz, minutu eta 28 segundo. Amaieran 7'40''ko denbora egin zuen Leitzakoak; Rodrigezek 9'08'' egin zuen. Bakarkako bigarren saioan Zubiagak garaitu zuen.

## TOLOSA ▶

## Aralarren porrota, Zarautzen aurkakoa

Infantilek lehen fasea amaitu dute, bigarren eta seigarren postuak eskuratuz

ERREDAKZIOA

Aralar saskibaloi taldeak porrota jaso zuen Zarautzen eginiko bisitan. 75-55eko emaitzarekin amaitu zuen partida Leioak Zarautz taldearen aurka. Datorren larunbatean Patronatoren aurka neurtuko da taldea, 18:00-etan Usabalen.

Kadeteek ere galdu egin zuten Federazio Txapelketan. Atletiko San Sebastian taldearekin, 76 eta 59. Infantilek, berriz, lehen fasea amaitu dute dagoeneko: A taldeak bigarren amaitu du sailkapenean eta B taldeak seigarren.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

### Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leizta): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Etxeko lanak.** Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Goiz eta arratsalde. Deitu 610 75 97 68 zenbakira.

**Tabernaria.** Anoetan, neska eskalduna behar da tabernan lau orduz lan egiteko. Esperientzia duena. Deitu 635 745 291 zenbakira.

## SALGAI

**Kopisteria.** Traspasoan edo salgai kopisteria, inprimaketa digitala, prezio onean. Tolosaldean. Deitu 615 73 61 85 zenbakira.

ANOETA ▶ DANTZA-SOKA



Talde handia bildu zen ekitaldira; 85 dantzari ez gain, trikitilariek eta sukaldariek hartu zuten parte. HITZA

# «Egun biribila» izan dute dantzariak

Antolatuta zeuden ekitaldi guztiak giro onean burutu zituzten pasa berri den larunbateko dantza-sokan

IMANOL GARCIA

Dantza-sokako antolatzaileek pasa berri den larunbatekoa «egun biribila» izan zela azaldu dute. Horrelako ekitaldietan hain garrantzitsua den eguraldiak lagundu egin zuen, eta antolatutako ekitaldi guztiak «giro onean» egin zituzten.

Baserriz baserri ibili ziren goizean zehar, bi taldetan banatuta. Baserritarrek eskertu zieten dantza saioak eta zer-bait jan eta edateko eskaintzen ziren dantzari eta trikitilariei. «Oso harrera ona egin ziguten», diote antolatzaileek.

Eguerdiaren 85 dantzariak batu ziren herrian eta neskek egin zuten plazan lehenengo saioa. Mutilena bazkariaren



Ateaga-Etxeberri baserriaren aurrean egindako saioaren une bat. HITZA

ondoren izan zen. Kuku elkar-teen egin zuten otordua, sei la- gunen artean prestatutako ba- barrun jatea.

Arratsaldean, erromeria egin zuten frontoian, herriko

trikitilariek animatuta. Gau partean Gaztetxean amaitu zuten festa. Egun guztian, beraz, euskal dantzak egiten aritu ziren ekitaldian parte hartu zute- nek.

VILLABONA ▶ KIROLAK

# Alejo-Sanchez bikotea irabazle joko garbian

Gipuzkoako Txapelketa lortu zuten finalean Alejo-Mitxelena 40-20 irabazi eta gero



Josexo Azurmendi Behar-Zanako ordezkaria, Jon Alejo eta Sergio Sanchez txapeldunak eta Igor Alejo eta Xabier Mitxelena. HITZA

I. GARCIA

Faboritoko eraman zuten Gi- puzkoako Joko Garbiko txape- la. Jon Alejok eta Sergio San- chezek 40-20 irabazi zieten Igor Alejori eta Xabier Mitxe- lenari. Partida «polita» izan zela deritzote lehiari aritu zi- ren bi jokalariek, Igor Alejok eta Sergio Sanchezek. Azken honek «kostata» irabazi zute- la dio: «Markagailuarengatik ematen du partida erraza izan zela, baina oso parekatua izan zen». Alejorentzat erritmoa izan zen erabakiorra: «Hasie- ran mantendu genuen, baina bukaera aldera ezin izan ge- nion eutsi, eta haiek partida guztian aritu ziren oso indar- tsu».

Bikote txapelduna joko gar- biko lehenengo mailan aritzen da eta azpitxapelduna biga- rren mailan, eta horrek zeri- kusia izan zuen emaitzan. Sanchezek dioenez, «asko bo-

rrokatu ziren, eta ez zen parti- da erraza izan». Alejoren hi- tzetan, akats gutxiko nor- gehiagoka izan zen: «Tanto gutxi izan ziren galdutakoak».

Giroaren aldetik ere gustu- rra zeuden pilotariak. «Jende dezente agertu zen, eta horre- lakoetan gertatzen den beza- la, biak etxeokoa izanda, biko- te ahulena ginenez guri ani- matzen ziguten bereziki», dio Alejok. Partida amaitu eta gero, Txapelketa parte hartu zuten jokalariei eta hauek or- dezkatzen zituzten elkarteko- ak (Zubietakoa eta Villabona- ko Behar-Zana) sagardotegi batean afaldu zuten.

Behar-Zanako pilotarien hurrengo hitzorduak martxo- aren amaiera inguruan izango dira. Orduan ekingo diote pla- za libreko joko garbi lehiaketa- ri, eta erroboteko txapelke- tari. Euskadiko ezker paretako txapelketa jokatu duten oraindik ez dute garbi.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: enia@ismoenla.com  
www.ismoenla.com

**Alegia.** Bi logela eta bi bainugela. Trastelekuarekin. 40 m2-ko terraza.

Estreinatzeko, gututz berritua izan ondoren.

**Asteasu.** 250 m2ko etxe bifamiliarra salgai. Eraikuntza berrikoa!

**Amezket.** Etxe atxikia salgai.

**Belauntza.** Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

**Bidania.** Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai. Oso egoera onean.

**Gabiria.** Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.

**Hernalde.** Etxe bifamiliari ederra salmentan. Eraikuntza nahiko berria.

**Ibarra.** Garaje ibi eta irekiak salgai.

**Ibarra.** Bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

**Ibarra.** Euskalerrria kalea. Oso egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela.

**Legorreta.** Eraikuntza nahiko berria. 2 logela eta 2 bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin.

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 168.285 eurotik aurrera.

**Tolosa.** San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Geltokialdean. Eraikuntza

berria. Bi logela, egongela, sukaldia, bi bainugela, bi terraza eta bi lorategi.

Behean: garajea, komuna eta txokoa.

**Tolosa.** Foruen etorbidean gututz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

**Tolosa.** Laskurain. 80 m2 dituen etxebizitza. Bizitzen jartzeko modukoa. 297.500 euro.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 120 m2-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

**Tolosa.** Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logelek, terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

**Tolosa.** Zezen-plazan. 87 m2ko

etxebizitza. Berritzeko. Igogailuarekin.

**Tolosa.** Trinkete. Garajea alokairuan.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 40 m2-ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Usabal. 2.000 m2-ko pabilioi industrialia alokairuan.

**Tolosa.** Guadalupe. Pabilioia salgai. 228 m2 beheko aldean eta 148 m2 goialdean. **Prezio interesgarria!**

**Villabona.** 24.400 m2 dituen lursaila eta 140 m2-ko borda.

**Zizurkil.** Eraikuntza berriko 640 m2-ko pabilioia. 9 metroko altuera. Kamioientzako 2 sarrera, bulegoak, komunak, aparkalekuarekin...



LIZARTZA ▶ INAUTERIAK

# Hurrengo urtera arte

Lizartzarrek agur esan zieten igandean beren Inauteriei *Ijito* erretzearekin; atsedetik gabeko asteburuaren ostean herria normaltasunera itzuli da azken egunetako mozorro eta gurdia gordeta



Ureta baserriko koadrilak, Kimi Raikkonen eta bere McLaren taldeaz jantzita, gurdi ikusgarrienaren saria jaso zuen igandean. HITZA



Lourdes Lasak jaso zuen balkoi apainduenaren saria. Aurtengoan erabakia hartzea inoiz baino zailagoa izan omen da. HITZA



Artengorako herritarrek aukeraturiko agintariak ere primeran pasatu zuten igandeko Inauteri bazkarian. HITZA



Antolatzaileen arabera, 400 lagun inguru bildu ziren frontoira txekorra dastatu eta jokoetan parte hartzeko. HITZA

IÑIGO ASENSIO

Igande iluntzean, lizartzarrek agur esan zieten aurtengoz bere Inauteriei. Larunbatean goizean goiz kalera irten eta igande iluntzerarte etenik gabe aritu dira kolore eta jai giroz beteriko asteburuan. Igandean eguraldia lagun izan ez zuten arren, jende mordoak elkartu zen frontoian egindako herri bazkarian.

Larunbatean herri agintariak erabaki zuten bezala, goizeko bederatzietan txekorra erretzen hasi ziren frontoi aurrean. Hamaiketarako, herriko dantzariak, txistulariak eta agintariak prest ziren meza nagusirako. Honen ondoren hamaiketako egin zuten eta, indarrak hartuta zirela, dantzari, txistulari, agintari eta gainontzeko herritarrek, mozorroak soinean, kalez kale abiatu ziren txaranga doinuek lagunduta. Ordubetan, urtero legez, Lizartzako *Inauteri-dantzak* ikusi ahal izan ziren herriko plazan, Lizartzako dantzarien eskutik.

Ikuskizuna amaitzean, herritar ugari frontoian egin zen bazkarira bildu zen, goizetik prestatzen ari ziren txekorra dastatzeko. Antolatzaileen arabera, «400 bat herritar» bildu ziren igandeko Inauteri bazkarian, ondoren izan ziren jokoean ere parte hartuz. Herriko Isk & Bila txaranga partaideak izan ziren jokoa egiten ziren bitartean giroa alaitzearen arduradunak. Hauen artean, aurtengorako aukeraturiko herri agintari eta aipaturiko txaranga kideen arteko sokatira nabarmendu dute; txaranga kideek herri agintariei irabazi zieten.

Hainbat joko egin ondoren, saria banatzeko ordua iritsi zen. Inaxio Olaetxea, *Luzea*, zenduaren omenez banatzen da gurdi ikusgarrienari saria, *Luzea* saria, hain zuzen ere. Urtero bere emazteak banatzen duen saria da, baina aurtengoa jasotzea ere egokitu zaio. Ureta baserriko koadrilak Kimi Raikkonen eta McLaren taldeko gurdiagatik jaso zuen saria. Balkoi apainduenaren saria, berriz, Lourdes Lasak jaso zuen, erabaki zailaren ostean.

20:30ean *Ijito*-a erre zuten, txaranga lagunduta, *Lizartzako Inauteriak* doinua azkenean abesten zuten artean, festa agur esateko.



**NERE**  
1962

Erremontari kalea z/g  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30  
**LENTZERIA**



Kuadrila eta taldeentzat -%10

**INAUTERIAK**

Helduentzat eta haurrentzat

Koloretako kamisetak

Kolore bizi eta marradun galtzerdiak

Pantiak, eskularruak...

GAZTELU ▶ GIZARTEA

# Apartamentu babestuak eta gizarte zentroa, inauguratuta

Herenegun egin zuten balio anitzeko zentroaren inaugurazioa; 6 plaza izango dituzte apartamentuek, eta gizarte zentroa helduak elkartzeko gune izango da

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun egin zuten, Gaztelun, Eskola etxea edo *Seroretxe* eraikinean kokaturik dagoen balio anitzeko zentro berriaren inaugurazioa. Apartamentu babestuak eta gizarte zentroa hartuko ditu zentroak, eta adinekoei zuzenduriko zerbitzu ezberdinak eskainiko ditu.

Patxi Navas Gazteluko alkatearekin batera, Gizarte Politikarako departamentuko ezinduen eta babesgabeen arretarako zuzendari Jose Luis Madrazo, eta Tolomendi eta Uli Mankomunitateko ordezkariak izan ziren ekitaldian, proiektuan era batera edo bestera parte hartu dutenak, alegia. Alkatea gustura azaldu zen, «herriak zuen beharra beteko duelako zentro berriak», eta gazteluar guztiak animatu eta gonbidatu zituen aurrerantzean zentroa erabiltzera.

Bestalde, Tolosako Gerontologikoa ere izan zuen hizpide aurkezpenean; Navasek esan zuen Gerontologikoa ez dela soilik tolosarrentzat, «eskualde osorako zuzendua dago, eta horregatik inguruko herritar guztiak arduratzen gaitu bere



Jose Luis Madrazo, Patxi Navas eta proiektuko gainerako ordezkariak, herenegun, aurkezpenean. i. t.

etorkizunak, gainera, orain lurramendiko egoitza tolosarrentzat izateko asmoa azaldu du Udalak. Kalitatezko Gerontologiko publikoaren alde egiten dugu».

Alkateari erantzunez, arazoa mahai gainean dagoela eta bi urteren buruan irtenbidea topatzea espero dutela adierazi zuen Madrazok. «Proiektu honenkin, Gipuzkoako herri txikietan bizi direnen kalitatea hobetu nahi dugu, eta Gazteluko zentro hau irekiz, agintaldi honetarako geneuzkan helbu-

ruak bete ditugu», gehitu zuen, bestalde, Jose Luis Madrazok.

Rai Mendiburu arkitektoak egin eta Luisa Lopez Telleria dekoratzaileak apaindu ditu apartamentu babestuak eta gizarte zentroa. Lehenengoaren kasuan, helburu nagusia «pertsonek helduei bizilekua eta arreta eskaintzea» izango da; gizarte zentroa, berriz, «elkartzeko gunea» izango da, non ikastaroak, hitzaldiak eta jolasak bezalako jarduerak sozialak antolatuko dituzten. Bestalde, zentroan euskal literaturan ga-

rrantzi handia izan duten bi gazteluar gogoratu nahi izan dituzte; izan ere, Inazio Goikoe-txea *Gaztelu*-ren eta Jose Mari Aranalderen bertsoak jarri dituzte hormetan.

Eraikineko lehenengo solairuan, etorkizunean, ezintasuna duten adinekoentzat eguneko zentro bat jartzeko aukera zabalik utzi dute: «Herriaren behar hori dagoela somatzen dugun neurrian aztertuko dugu aukera hori», azaldu zuten aurkezpen ekitaldira bildutako ordezkariak.

## ZENBAIT DATU ▶

### AURREKONTUA

**Guztira.** 263.800 euroko inbertsioa izan du, horrela banatuta:

- ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiak 131.900 euro ipini ditu; %50.
- ▶ Tolomendiren eta Mendikoiren *Erein* programak, 63.900 euro.
- ▶ Kutxaren Gizarte arloko sailak, 50.000 euro.
- ▶ Gazteluko Udalak, 18.000 euro.

### GIZARTE ZENTROA

**Egitura.** Eskola etxe edo *Seroretxe* eraikineko behe solairuan dago, eta sukaldea, egongela, atsedendirako gunea, egokituriko bi komuna, almazena eta kaldera gela ditu. 129 m<sup>2</sup> denera.

**Mugikortasuna.** Bertara iristeko, eta barruan mugitzeko ez du oztopo arkitektonikorik.

**Helburua.** Helduak elkartzeko, eta jarduera sozialak antolatzeko gunea izango da.

### APARTAMENTU BABESTUAK

**Egitura.** Eraikineko bigarren solairuan daude bi apartamentuak. Etxebizitza bakoitzean bi gela daude, bat bikoitza, eta bestea banakoa. Sukaldea, komuna, jangela-egongela eta harreraz osatuta daude.

**Helburua.** Bere kasa baliatzeko gaitasuna duten baina gizarte arazoren bat duten adinekoei zuzenduak daude apartamentu babestu hauek.

## Maria Albizu, apartamentuetako batean bizi den lehen adinekoa

Maria Albizu 97 urteko gazteluarra da inauguratu berri dituzten bi apartamentuetako batean bizi den lehendabizikoko adinekoa. Proiektua abian jarri aurretik bera etxebizitza horretan bizi zen, eta eraikuntza berritzeko lanek iraun duten bitartean bere alabarenera joan da bizitzera. Behin etxebizitza berrituta eta bertan bizitzeko moduan zela, pasa den larunbatean bueltatu zen bere jabetzak hartuta aurrerantzean bere bizilekua izango denera.

Bere apartamentuak, egongela-sukaldea, komuna eta bi gela ditu, baina hori bai, herritar edo inguruko herriren bateko norbaitek erabili behar badu, harekin bizi beharko du beste apartamentuan ere norbait balego. Etxebizitza hauek autonomoei zuzendurikoak

dira, eguneroko bizimoduko jardueretan arreta handirik behar ez duten arren beren ohiko etxebizitzan bizi izan zireneko zailtasunak dituzten adinekoentzat, eta horren adibide dugu Maria Albizu.

Horregatik, etxek etxeko zerbitzua jasotzen du egunero, hau da, pertsona bat izaten du laguntzaile moduan. Laguntzaile honek erosketak egiten dizkio, otorduak prestatu, etxea eta arropak garbitu... Baina berebiziko garrantzia duen beste era batean ere laguntzen du, harekin hitz eginez eta konpainia eginez, alegia.

Herenegun egindako aurkezpenean izan zen Maria Albizu, eta oso gustura azaldu zen, irribarre batekin, eta jendebait balego. Etxebizitza hauek sartzeko gonbita eginez. Herri-



Maria Albizu 97 urteko herritarra apartamentu babestuetako batean bizi da. IÑIGO TERRADILLOS

tarrak nahiz proiektuko ordezkariak izan ziren bere bizilekua ikusten eta gustura zegoela zioen, denek ere oso polita zela esaten baitzuten. «Oso pozik nago, oso kontent; etxe honetan zeruan baino hobeto aurkitzen naiz», azaldu zuen.

### Informatikako ikastaroak Alegian

Aurreko urteetan bezala M.A.E. enpresak informatika ikastaroak emango ditu Alegiako kultur etxean.

Aste honetan, enpresa hontako langileek etxek etxeko bisitak egingo dituzte eduki, prezio eta odutegiei buruz informatzeko ikastaroan parte hartu nahi duten bizilagunei.

Interesa duenak dei dezala **943 376 979** telefono zenbakira.

## ALEGIA ▶

MAEren eskutik,  
informatika  
ikastaroa

Pasa diren urteetan bezala, MAE enpresak informatika ikastaroak emango ditu aurren ere Alegian. Kasu honetan Kultur Etxean jasoko dira klaseak, arratsaldetan. Izena emateko epea zabaldu dute, eta klaseak Inauteriak bukatu ondoren hasiko direla jakinarazi dute. Aste honetan enpresako langileek etxeko bisitak egingo dituzte behar den informazioa emateko. Dena dela, horretarako bada telefono zenbaki bat ere: 943 37 69 79.

## IKAZTEGIETA ▶

Trakzio  
Mekanikoko  
Ibilgailuen zergak

2006ko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion errolda onartu dute herrian, eta honi dagozkion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarririk izan dira. Ordaintzeko epea hilaren 20tik apirilaren 3ra bitarteko lanegunetan izango da, eta banketxean edo Udaletxean egin ahal izango da. Helbideratuta dauden ordainagiriak apirilaren 3an kobratuko dira.

## ALEGIA ▶

Karmenak  
prestatzen hasiko  
dira gaur

Gaur, 19:30an, udaletxean, festei buruzko informazioa eta diru kontuak jakiteko herriko jendea bilduko da, Karmengo jaien inguruan ideiak eta proposamenak emateko. Festetako lehenengo bilera izango da gaurkoa, eta irekia da.

## iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK  
**ETXESAGASTI**

## ESPAINIAKO PISTA TXAPELKETA ▶

11 domina ekarri  
dituzte etxera  
Tolosaldekoek

Igandeko probetan irabazi zituzten gehiago; denera, sei  
Leire Olaberriak, hiru Ainhoa Pagolak eta bi Xabier Artolak

## NEREA URBIZU

Tafallako Miguel Indurain Belodromoan jokatu ziren herenegun Espainiako Pista Txapelketan egin beharreko azken probak. Eta bertan aritu dira, maila ona emanaz, gainera, Tolosaldeko txirrindulariak. Leire Olaberria ikaztegiatarra, Ain-

hoa Pagola tolosarra eta Xabier Artola tolosarra aritu ziren bizikleta gainean. Euskadiko Selekzioan aritu ziren hirurak, eta azpimarratu beharra da haien lan txalogarria; izan ere, 11 domina lortu dituzte asteburu honetan Tolosaldekoek.

Orotara, Olaberriak eta Pagolak 9 domina lortu dituzte.

Leire Olaberriak bi urre eta zilarrezko lau eskuratu zituen. Igandean, *keirin* proban irabazi zuen, urrezkoetako bat lortuz. Besteen artean, zilarrezko bat puntuazioan lortu zuen, proba garrantzitsua benetan. Irabazlea Gema Pascual izan zen, Espainia mailan onenetarikoa dena.

Ainhoa Pagolak urre bat eta bi zilar jantzi zituen Txapelketan. Igandean bigarren egin zuen *keirin* proban; zilarrezkoa, beraz.

Xabier Artola tolosarra ere fin aritu zen, bi domina lortuz: brontzezkoa abiadura proban eta urrezkoa, aldiz, *keirin*-en.

Datu hauek ikusita ez da harritzeko Tafallan ostiraletik igandera entzun zena: Euskadiko Selekzioa goretsituen izan zen, emaitza oso onak lortu baitzituen.

## Arerio gogorrenak

Katalandarrak ere oso ongi aritu ziren, baina taldeetako probetan. Orotara, 10 domina lortu zituzten, eta hauek, euskaldunekin batera, maila ona erakutsi zuten. Madrilgo txirrindulariek 8 domina lortu zituzten.

## LEIRE OLABERRIA ▶ TXIRRINDULARIA

Espainiako Txapelketa alde batera utzita, Leire Olaberria Mundialetan ari da pentsatzen. Ez zuen Gipuzkoako Txapelketan parte hartu azkenean, baina gaur joanen da Valentziara (Herralde Katalanak), eta ostiraletan da Australiara joatekoa, azken Mundiala egitera.

## Lesioaz osatu al zara?

Bai, gorputza indartsu somatzen dut, bizikleta gainean nabilean ere ondo sentitzen naiz. Baina gogo ikaragarriak ditut hara joateko eta bizikletan ibiltzeko. Horrek ere lagundu egiten dit. Dena dela, lo egiteko orduan oraindik ere min pixka bat izaten dut.

## Valentziara, zertara?

Kontzentrazioa daukagu. Han serio entrenatu behar dugu, eta baita mentalki prestatu ere. Australiara goaz, eta munduko kopako azken proba da. Prestaketa berezia behar du. Fisikoki prestatzea garrantzitsua da, baina burua prestatua izatea ere ezinbestekoa da, ia erabakiorra kasu askotan.

«Hankek ondo erantzuten dutenean burua ere ondo dago»



LANDER GARRO / OARSALDEKO HITZA

## Zein da zure helburua Munduko Kopa honetan?

Egia esan, nire helburuak jada bete egin ziren: Burdeosen (Frantzia) izango da uda alde-

ra Mundiala. Australian klasifikatzen ez banaiz, ez dit gehiegi inporta. Hara proba bat korritzera joatea asko da niretzat. Oso-oso pozik nago lortutako emaitzekin, ilusio handiarekin. **Noiz egingo dituzu probak?** Berez martxoaren 3an hasiko

dira. Beste bi egun egingo ditugu han, konpetizioan. *Scrach* proba, puntuazioarena eta persekuzioa egingo ditut. 6an espero dugu bueltatzea, eta 7an etxean egongo gara.

## Eta klasifikatuz gero zer gertatuko da?

Burdeoseko Mundialera joango nintzateke, eta bertan ere *scrach*, puntuazioa eta persekuzio probak egingo nituzke, munduko 30 txirrindulari onenekin, inoiz ez estatu bereko birekin, beti ere. Adibidez, ni eta Pascual pasatuz gero, ezin izango gara biak proba berean aritu, nahiz eta onenak izan.

## Zeinetan ikusten duzu zeure burua nahiz gorputza prestatuen?

*Scrach*-a izan daiteke hobekien egiten dudana. Puntuazio proban esperientzia behar da, eta hori oraindik ez daukat.

## Badago beldurra diozun txirrindulariren bat?

Ez dakigu zeintzuk izango diren han egongo direnak. Baina, Australian izanda, hango askok hartuko dute parte, eta etxean egonda beti abantaila da eta ziurrenik prestakuntza berezia egin izan dute. Amerikarrak ere oso onak dira, baita errusiarrak ere. Egia da ere bazuk ez direla arriskatu, erortzeko arriskua egon daitekeelako han, eta Burdeoseko Mundialerako gordetzea indarguztiak.

## Espainiako Selekzioan zein izango duzu alboan?

Gema Pascual madrildarra eta biok jango gara. Bere aurka ere ariko naiz, tour batean ariko bagina bezala. Hemen norberak egin behar du lana, norberarentzat. ◀

TOLOSALDEKO  
HITZA.INFO

**Eztabaida.** Matrikulazio kanpainan daude murgilduta ikastetxeak. Zer hartzen duzu kontuan seme-alabak ikastetxe batera ala bestera eraman aukeratzeko? Sar zaitez gure orrian eta eman zure iritzia, eta beste irakurleen pentsaerekin alderatu.

**Aduna.** Bifamiliarra salgai. 150 m2 eta 60 m2-ko garajea. Kalitatezko berrikuntza. Luxuzkoa.

**Etxesagasti.** 943 69 68 56.

**Andoain.** Eraiki berria den etxebizitza ederra salgai. 3 logela. Garaje itxia. Oso polita. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Bidanía.** Eraiki berria den bifamiliarra salgai. Egoera ezin hobean. Informa zaitez!

**Etxesagasti.** 943 69 68 56.

**Ibarra.** Etxebizitza polita salgai. Berritua. Sukalde-jangela,

hiru logela eta bainugela.

Kanpoaldera. 41.000.000 pezeta.

**Legorreta, Berrobi eta Albiztur.**

Egoera oneko baserriak, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Segura.** Banakako baserria, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** Egongela, sukalde, 2 logela eta bainugela dituen etxebizitza. Bizitzera sartzeko moduan. Trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

## LEITZA ▶ ANTZERKIA

Euskararekin,  
jolas eta parra  
'Larru'-tik

J. Astibia ▶ Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek *Larru haizetara* antzerki lana taularatu zuten larunbat iluntzean Leitzan —irudian, emanaldiaren une bat—, bertara bildu ziren ikusleei irribarra eta algara eraginez. Euskara hizkuntza beraren inguruan egin izan dituzten antzerkien ildotik, honetan gure hizkuntzaren erotikotasuna eta ligatzeko balioa eta ... izan zituzten erakusgai. Bi artista hauek, piper puntuz betetako esketzak baliatu zituzten horretarako, hitza, euskara, tresna izanik. JAIONE ASTIBIA



## LEITZA ▶ FUTBOLA

Sailkapenean lehen postuan,  
sekulako emaitzarekin etxera

2 eta 4 irabazi dio Aurrerak San Cristobali, «gogorrakoak espero arren»

## JAIONE ASTIBIA

Asteburu aberatsa izan da igaro berri den hau Aurreraren zatitza: partidua irabazi, erraz antzean, eta, gainera, sailkapeneko aurreneko postua berreskuratu. Lorpen handiak biak ala biak ere.

Irujo eta Arrizurieta mutilek, larunbatean jokatu zuten partidua, Berriozarren, San Cristobalen aurka: 2 eta 4koa eginda, «gustura gelditu ginen; ongi jokatu genuen. Aukera asko sortu genituen, jokaldi polit askorekin, eta golak horixe adierazi zuten», azaldu zioten Hitzari atzo taldeko ordezkariak: «Arerioa gogorrako izanen zela uste genuen, halek goiko mailatik jatsitakoak izanik, partidua zailagoa suerta-

tuko zitzaigula. Baina ez zen hala izan».

Leitzarrek zelaiaren jaun eta jabe izan ziren partiduaren zatirik gehienean, lehen zati osoan, ordurako 0 eta 4koa eskuratu zuten, eta baita bigarrenaren lehen 20 minututan ere: joko azkarra ezarri zuten, jaurtiketa luzeak eginez, aurkariari jokatzeko ez utziz, baloiarekin trebe, jokaldi ikusgarriak bideratu zituzten eta Jon Arangoa (bi sartu zituen), Iñaki Antolin eta Eneko Barberia izan ziren gogileak.

Partiduko azken ordu erdian lasaitu egin ziren, ordea, aldea nabarmena zela ikusita, eta orduan etorri ziren bertakoekin bi tantoak. Azken emaitza leitzarrentzat izan zelarik, jardunaldiko hiru puntuak ere bai.

Hiru puntu oso garrantzitsu. Izan ere, Aurrera 39 punturekin dago orain, eta horrela sailkapeneko lehen postua berreskuratu du.

## Lehendabiziko

«Gazte Berriak-ek partidua atzeratu egin zuela uste dugu, baina bestela ere, irabazita ere, biak berdin egonen ginatke», azaldu zuten. Lekunberriko taldeak Aurrerak adina puntu baitzituen, bigarren lekuan, Baztanen atzetik. Baina Elizondoko taldeak 37 zituelarik, asteburu honetan Aralar Mendirekin jokatu eta hutsnako emaitzarekin, berdinketa egin duenez, puntu bakarra eskuratu du; eta, ondorioz, orain bera legoke bigarren.

«Garrantzitsuena hiru aurrenekoetan egotea da. Igoerako fasera taldea indartsu eta animoz beteta joatea», nabarmendu zuten, leitzarren ordezkariak, sailkapena aitazterakoan.

Hurrengo jardunaldiari dagokionez, etxean jokatzeko egoitzen zaio Aurrerari; Agoitz taldea izanen du arerio, «oso ongi ez dabilen taldea», zehaztu zuten, sailkapenari dagokionez, azkeneko lekuetan baitago. Joanerako partidua, bako berdinketaz bukatu zuten.

Bestalde, Aurrerak etxeko partidua igandetan jokatzeko badiu ere, honetakoan Inauteri igandea dela eta egun bat aurreratuko dutela jakinarazi zuten. Horrela, Arkixkilen larunbatean jokatuko dute.

## LEITZA ▶

Aoiz: «Ez dute  
inoiz galdegin  
nafarron  
borondatea»

'El jarron roto' bere liburuaren aurkezpen hitzaldian adierazi ditu hitzok Aoizek



Floren Aoiz hizketan. J. ASTIBIA

## J. ASTIBIA

Hainbeste aldiz batzuk eta besteek aitaturako «Nafarron borondatea»-ri erreferentzia eginez hasi zuen Floren Aoiz idazle historialariak *El jarron roto* bere azken historia-liburuaren aurkezpen saioa, Aurrerako aretoan bildu ziren entzuleen aurrean: «'Nafarron borondatea' esaldia hitzetik hortzera darabilki gaur egun boterean dagoen UPNk. Ez dute inoiz galdegin nafarron borondatea zein den eta! Badakitelako gezur hutsean oinarritutako Nafarroa dugula oraingo hau».

Baieztape hau egin zuen idazle tafallarrek, eta ondorioz horretara iristeko, eskuartean izan ditu hainbat idatzi, agiri eta eskutitz. «Trantsizioa delako hori baino lehenago, frankismo pertsonaiak mozturatu eta postfrankismo prestatu zituzten, dena lotuta eta kontrolpean egon zedin: (...) eta partidu guztiak horrekin bat zetozen, guztiak», zioen. Hainbat eredu ere jarri egin zituen.

► hilberriak  
► urteurrenak  
► eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

## hilberria ▶

Ausarta hitzen zori benetan gidari trebea motorraren gainean oain hi gure arteik urrutzean orduak luze dituk gure artean mendian, lanean, etxean ta hi beti bihotzean sinestezina duk hau gure kuadrilan egunen batean hirekin bat egingo diagulakoan izan hadi zoriontsu zeruian, izarren artean

Hire koadrilakoak

## hilberria ▶



**Juan Manuel  
Garmendia Zabala**  
(Lari)

ATZO hil zen, 50 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
—Golan bago—



Emaztea: M<sup>a</sup> Ines Berasategi; seme-alabak: Xabier eta Leire; ama: Miren Zabala (Ignacio Garmendiaren alarguna); ezkon-ama: Pepita Lardizabal (Hilario Berasategiaren alarguna); anaia-arrebak: Pantaleon eta Ceferina, Leandro eta Inma, Antonio, M<sup>a</sup> Karmen eta Jose Luis; osaba-izebak; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, IDIAZABALGO SAN MIKEL GOIANGERUA parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Araba etorbidea, 3-5E

TOLOSA-IDIAZABAL, 2006ko otsailaren 21a



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko otsailaren 21a, asteartea ▶ IV. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalako: Abaltzokia, Aduna, Albizur, Añeta, Alkiza, Alzo, Amoreta, Anosta, Areso, Arakaso, Balaran, Beauriza, Berastegi, Berrobi, Edoan, Herrialde, Ibarra, Itzandegia, Irujo, Leizola, Leiza, Lizaso, Orendan, Orosa, Tolosa, Villabona, Zuzkili

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

08

hotzena

06

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN

Guardetxe:

gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:

gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zaintzak argizko...)

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Herriko festak antolatzeko bilera. 19:30ean, udaletxean.  
**Alkiza.** Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak irri-terapia ikastaroa antolatu du, ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara, Kultur Etxean. Izen-ematea, Mankomunitatean edo 943 69 39 30 telefono zenbakian.  
**Berastegi.** Podologoaren bisita izango dute Gaztainondo jubilatuen elkarteek hilaren 25ean, 09:30etik 12:15era. Ordua aurretik hartu behar da, elkartearen bertan edo 943 68 32 64 edo 943 68 32 02 telefono zenbakietan.  
**Berastegi.** Arnedora irteera antolatu du Gaztainondo jubilatuen elkarteak, martxoaren 14an. Bazkideek 27 euro eta gainontzekoek 30 euro ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea, elkartearen.  
**Tolosa.** Eresoinka abesbatzan aritutako kantariantzako bazkaria antolatu dute martxoaren 12an. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84 edo 677 43 89 49 telefono zenbakietan.  
**Tolosa.** Iraupen eskia behar den bezala ikasteko, 1992-93-94-95 urteetan jaiotako gaztebozontzat ikastaroa antolatu du Alpino Uzturre elkarteak, martxoaren 4-5 eta 11-12 asteburuetan, Somport-Candanchun. Informazio gehiago eta izen-ematea 685 776 504 telefono zenbakian.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Jose Luis Albizuren margolanak. Hilabete osoan ikusgai, Jubilatuen tabernan.  
**Tolosa.** Luis Mari Nuñezen lanen erakusketa. Hilaren 25 arte, Aranburu Jauregian.



Paco Polanen Heriotz eraikiak erakusketako irudi bat. HITZA

**Tolosa.** Heriotz eraikiak. Paco Polanen argazki erakusketa. Marboaren 11 arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

**HITZALDIAK**

**Tolosa.** Drogomenpekotasunen prebentzio lana familian izeneko hitzaldia, Hilario Garrudo psikologoaren eskutik, Orixe. 18:30ean, DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoei zuzenduta.

**INAUTERIAK**

**Amezqueta.** Talai-dantza entseguak. Asteazkenetan eta ostiraletan, 20:30ean, Gazte Taldeko lokalean.  
**Tolosa.** Zaldunita bezperako danborradarako entseguak. 20:15ean, Musika Eskolan.  
**Tolosa.** Arpegi taldeak Ostiral Mehean Beotibar pilotalekuan eskainiko duen *Zirkuko mutilak* izeneko ikuskizunerako sarrerak salgai jarri ditu Triangulo kafetegian, Cantabrico eta Atodo tabernetan, 6 eurotan.

**ZINE-KLUBA**

**Alegia.** Sandre Nethelbeck zuzendariaren *Deliciosa Martha* filma (Alemania). Bihar, 21:30ean, Gazteetxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi etxea. 112.  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, Hitzaren errepeasoak, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...  
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
21:00-22:00. *Zaharrek berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

**PUBLIERREPORTAIA ▶ ERRE-BERRI OKINDEGIA**

«Gure bezero guztiekin ospatu nahi dugu urtemuga»

1995. urteko otsailaren 20an zabaldu zuten Erre-berri okindegia Ibarako Idoiaga plazan. «Hamaikagarren urteari ekitea ospatzeko modukoak» dela eta, martxoaren 1etik aurrera promozio batekin sarituko dituzte bertako bezeroak. Besteak beste, horretaz eta okindegiaren martxaz hitz egin du HITZAREKIN Erre-Berriko jabe Lourdes Medranok eta Felipe Landak.  
Landaren familiaren lekukoa hartu eta ogia egiten hasi ziren Medrano eta Landa senar-emazteak. «Behin martxa hartuta», gozogintzan ere probatzea pentsatu zuten, eta «jendearen erantzun ona ikusita» biak bateratzea erabaki zuten. Ibarako Idoiaga plazako okindegia zabaldu zuten lehenik, Tolosako San Frantzisko kalean beste bat 2000. urteko apirilean, eta Ibarako Azkue auzoan hirugarrena 2003ko azaroan. «Gure bezeroei esker atera gara aurrera, hasiera-hasieratik konfiantza izan dutelako guregan».



I. TERRADILLOS

Hala, bezeroak saritzeko, zerbait berezia egitea bururatu zitzaion. «Gure bezero guztiekin ospatu nahi dugu urtemuga. Azken finean, arrakasta haiei zor diegu». Martxoaren 1etik aurrera, eta urtebetez, promozio berezi bat jarriko dute martxan Erre-berri okindegiak. Ez dute aurreratu nahi, baina, zer nolako izango den: «Urte osoa irauango du promozio honek, Idoiaga plazako establezimenduan, jende guztiak saria jaso dezan. Familia handi bat bezalakoak gara, belaunaldi asko pasatu dira hemendik, eta denok elkar ezagutzen dugu. Nola sarituko ditugun? Sorpresa izatea nahi dugu. Beraz, etor daitezela eta goza dezatela». ◀

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Aiora Aranalde Ramiro (Berastegi). Gaur 7 urte. Muxu bat denon partetik.



**URTE ASKOAN**  
Inge Baztarrika Arozena (Ibarra). Gaur 4 urte. Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Imanol Mendizabal (Ikaztegia). Aita, ama eta Ainararen partetik, zorionak zure 9. urtebetetzean.

**HITZA,**  
zorion agurren tartea  
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 beheko TOLOSA Udaletxeko bulegoa LEITZA  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

**OKINDEGIA Erre-berri**  
Idoiaga plaza, 5 - 20400 IBARRA - Tel.: 943 67 57 81  
San Frantzisko, 25 - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 69 80 62  
Azkue, 12 - 20400 IBARRA - Tel.: 943 67 62 59